

ITSASKETAKO UNIBERTSITATE MASTERRA

SARRERA-PROFILA

Gomendatutako sarbide profila Itsasketako Graduko ikasle tituludunarena da.

TITULAZIOAK

- Itsasketako Gradua
- Itsasontzi Mekanikako Gradua/ Lizentziatura
- Aipatutakoen pareko titulazioak

AURREKO PRESTAKUNTZA

Era berean, Masterrera zuzeneko sarbidea izango dute aurrekoen baliokideak diren titulazioek; zehazki, jarraian adierazten direnak:

- Itsasketa Zibilean lizentziadunak: Makinen atala. 1977ko ikasketa planari dagokion titulua, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren agindu hauek araututakoa: 1977ko urriaren 19ko Agindua (254. BOE, 1977ko urriaren 24koa); eta 1982ko azaroaren 10eko Agindua (276. BOE, 1982ko azaroaren 17koa).
- Itsas Merkataritzako Makinaburua. Lanbide titulu horretan sartzeko, adierazitako lizentziaturetako baten bat behar da edo -plan horien aurreko kasuetan- honako hauetan araututako ikasketa plana egin behar da: 144/1961 Legea, abenduaren 23koa, itsasketa eta arrantzako irakaskuntza berrantolatzeari buruzkoa; eta 2841/1980 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Itsasketa Zibileko goi mailako irakaskuntzei buruzkoa (4. BOE, 1981eko urtarrilaren 5koa).
- Itsas Merkataritzako 2. mailako Makinen Ofiziala. Lanbide titulu honetan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira: Itsasketa Zibileko diplomatura (Makinen atala) izatea, abenduaren 4ko 2841/1980 Errege Dekretuaren bidez araututakoa (1981eko urtarrilaren 5eko BOE); 1999ko ikasketa planei dagokien Itsasontzi Makineriako diplomatura izatea, 1999ko martxoaren 15eko Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ebazpenaren bidez araututakoa (1999ko apirilaren 9ko BOE); edo -plan horien aurretik- honako hauetan araututako ikasketa plana egin behar da: 144/1961 Legea, abenduaren 23koa, itsasketa eta arrantzako irakaskuntza berrantolatzeari buruzkoa; eta 2841/1980 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Itsasketa Zibileko goi mailako irakaskuntzei buruzkoa (4. BOE, 1981eko urtarrilaren 5koa).

MERITUEN BALORAZIOA

Espedientea: Sarbide titulazioan lortutako espediente akademikoa baloratuko da. Hautapen irizpidean, jarraian adierazten diren koefizienteak erabiliko dira:

- Itsasketako Gradua (% 100)
- Itsasontzi Makineriako lizentziatura eta bestelako titulazio baliokideak (% 90) -
- Adarreko besteko titulazioak (% 70)
- Beste adar batzuetako titulazioak (% 50)

PROBA ESPEZIFIKOA

Ez da sarrerako proba berezirik egingo.